

## ■ 'Argia' astekariak sei mila elkarrizketatako fondoa jarri du Interneten

ARGIA astekariak webgune bat ireki du Interneten, eta baliabide interesgarri bat jarri du bertan. <http://www.argia.com> helbidean lotuz gero, Argia-ko elkarrizketak (1963-1996) lanarekin topo egingo du bisitariak. Sei mila elkarrizketa jarri ditu online Argia-k lan horretan, eta bilaketa tresna baten bidez azken 35 urteotako euskal gizarte eta kulturako gai edo pertsonaien hitzak aurki daitezke erraztasun handiz. Ametzagaña Elkarteak -Argia partaide du- martxan jarri duen Ametza Interneteko zerbitzariaren bidez jarri du webgune hau Argia-k. X

## ■ Haragi Eguna ospatuko dute gaur harakinek eta EHNE sindikatuak

HARAKIN eta txarkuteroen elkarteek eta EHNE nekazarien sindikatuak antolaturik Haragi Eguna ospatuko dute gaur. Kalitatezko haragia, osasunaren ezaugarria da ekimen berri honetarako aukeratu duten leloa. Euskal Herrian bertan ekoizten den kalitatezko haragiaren defentsa da EHNEko abeltzainen eta harakinen helburua. Haragi Eguneko ekitaldiak jai giroan egingo dira gaur Donostian, Konstituzio Plazan. Batetik, bi txahal erreko dituzte bertan Argentinako pampero erara, ondoren afari batean dastatzeko. Bestetik, Gipuzkoako elkarte gastronomikoen arteko haragia gisatzeko lehen lehiaketa egingo da. Ekitaldi hauek 16:00etan hasiko dira. X

## ■ Hiru lagun atxilotu dituzte Bilboko kaleetan banketxe batean lapurtu eta gero

Bilbon banketxe batean lapurreta egin ondoren berehala atxilotu zituen hiru lagun atzo Ertzaintzak, Salbeko zubiaren azpian. Goizeko 11:30etan gertatu zen lapurreta Deustuko banketxe sukurtsal batean. Hiru lagun sartu ziren armaturik, eta batek bezero bati pistola buruan jarri zion. Beste bi lapurrek kutxan eta kutxa gotorrean zegoen dirua hartu zuten, 900.000 pezeta inguru. Berehala, banketxetik irten eta auto batean Bilbo erdialdera jo zuten. Hala ere, bizi-lagun batek ihesean ikusi eta abisua eman zion Ertzaintzari. Azkenean, auto ilada batean harrapatu zituen ertzainen patruila batek eta han atxilotu zituzten. Lapurrak hiru gizonezko dira, bat Sestaoa eta 37 urtekoa, bestea Santurtziko eta 39 urtekoa, eta gazteena Basauriko eta 27 urtekoa. Denek zituzten aurrekariak lapurreta dela-eta, eta gazteena espetxeko baimenarekin zegoen kalean egun hauetan. X

## ■ Europar onartu duten Asmakizun Bioteknologikoen Legea gaitzetsi du EHNEk

EUROPAKO MINISTROEN Kontseiluak atzo onartu zuen Asmakizun Bioteknologikoen Babes Legalaren inguruan Batzordeak proposatutako direktiba. Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak (EHNE) oso gogor kritikatu zuen Europako ministroen erabakia, haren ustez, bizitzaren kontrola multinazionalen esku uzten duelako. EHNEren iritziz, legea onartzerakoan ez dute kontuan izan elkarte ekologista eta laborarien iritzia, eta indarrean jartzen bada, bizitza multinazionalen esku geratuko den merkantzia bihurtuko da. Legearen ondorioz, laborantza transgenikoa ugalduko da EHNEren hitzetan. Hori dela-eta, laborariak landareen inguruko kontrola galduko dute, eta tratamendu biomedikoak luxuzko zerbitzu bilakatuko dira, soilik dirua dutenen eskura. Nekazarien elkarteak Espainiako Kongresuari eskatu dio erabaki horren kontrako jarrera har dezala. X

## ■ LABek, ELAk eta EILASEk behin-behineko langileen egoera hobetzeko eskatu diote Hezkuntzari

LAB, EILAS eta ELA sindikatuak plataforma bat aurkeztu dute Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Hezkuntza Sailaren aurrean, behin-behineko kontratua duten irakasleen eta ordezkoren lan egoera hobe dezala eskatzeko. Hiru sindikatuak jakinarazi dutenez, EAEn uneon egoera horretan 4.000 irakasle baino gehiago daude, eta «lan baldintza eskasetan eta lan egonkortasunik gabe daude». Hezkuntza Sailari galdegin diote hezkuntza sistema publikoan lan egonkortasuna ahalik eta irakasle gehienarengana luza dezala eta azaldu diote negoziazioen bidez lortutako lan baldintzetan ez dutela murrizketarik onartuko. Sindikatuok erantsi dute orain arte egin duten bileran «erantzun ezkorra» jaso dutela Administrazioaren aldetik. Ildo horretan, egonkortasun egoera ez duela gehitu nahi azaldu du Hezkuntzak. Horrez gain, sindikatuak salatu dute ordezkoei udan kobratzeko duten eskubidea murriztu egin nahi duela. X

# Krutwig euskaltzainen dekanuari omenaldia egin dio Euskaltzaindiak

Urrezko Domina eman diote Akademian 50 urte egiteagatik

**F**ederiko Krutwig euskaltzainen dekanuari omenaldia egin zion Euskaltzaindiak atzo Bilbon. Euskaltzain izendatu zutenetik 50 urte betetzen direla eta, Krutwigek Euskaltzaindiaren Urrezko Domina, Akademiak duen ohoragarri nagusia, eta bera-ri eskainitako liburu berezi bat jaso zituen.

Erredakzioa / Bilbo

ZAHARRENA ez izan arren, Federiko Krutwig Salcedo da zeregin horretan urte gehien daramatzan euskaltzaina; alegia, aurtun 50 urte betetzen dira euskaltzain izendatu zutenetik. Hori dela eta, Euskaltzaindiak omenaldi beroa eta esker onekoa egin zion Bilbon duen egoitzan atzo arratsaldean.

Omenaldian, Krutwigi eskainitako liburu berezia aurkeztu zen; euskaltzain ia guztiek jorratu dute, eta omenduak Euskaltzaindiaren Urrezko Domina jaso zuen Jean Haritzelhar euskaltzainburoaren eskutik. Urrezko Domina da Akademiak duen ohoragarri nagusia eta orain arte behin bakarrik eman izan du, Espainiako Juan Carlos Erregeari hain zuzen.

Haritzelharrek omenduak Euskaltzaindian egin dituen 50 urteei gainbegirada eman zien bere hitzaldian. «Badu orain 50 urte euskaltzain oso zarela. Zuk ezagutu dituzu lehenbiziko euskaltzainetan hiru bederen: Az-



Krutwig eta Haritzelhar, omenezko liburuarekin begiztatzen.

XOUSE SIMAL

kue, Urkijo eta Aita Pierre Lhande, horiek oraino bizi baitziren euskaltzain oso izendatua izan zarelarik eta, hain zuzen, hiru horiek bilkuran zeuden proposatu zenuelarik Euskaltzaindiaren berritzea hamabi kidearik hemezortzira pasatuz eta hori Donostiako Diputazioan 1949. urteko irailaren 30ean, adierazi zuen.

«Azken 20 urte hauetan», azaldu zuen, «zu berriz etorri zirelarik honara, hamalau euskaltzain berri sartu dira Euskaltzaindian, erdia baino gehiago beraz, zortzi gara 1962-1977 tarte horretan sartuak eta Aita Villasante baka-rik 50eko hamarkadan. Zu zara oraingo gazteen, ez hain gazteen eta lehenbiziko euskaltzainen arteko lokarri. Alde batetik, Azkue, Urkijo, Lhande eta bestetik, berriki sartu diren Kintana, Goena-

ga eta Urrutia. Euskaltzaindiaren berriztatzaile lehen, euskaltzain belaunaldien arteko lokarri orain, goresmen zuri bihotz-bihotzetik eta urte askotarako».

Ondoren, Krutwigek, hunkituta, hartu zuen hitza eskerrak emateko. Getxon jaio eta 76 urte dituen euskaltzainen dekanoren lanak hainbat arlo hartu ditu: hizkuntzalaritza, literatura, nazionalismoari buruzko hausnarketa, filosofia...

Aita alemaniarra eta ama jatorri italiarrekoa zituen Krutwigek, eta etxeko giroak horretara bultzatu ez bazuen ere, gaztetatik izan da euskaltzale bete-betea. Gerraosteko Bilbon bera izan zen euskararen eragile nabarmenetako bat, eta haren lankidetzaren erabakigarria izan zen Euskaltzaindia lozorrotik ateratzeko. X

ÁNDER GILLENEA



## Bernardo Estornes Lasari omenaldia UEUK

Bernardo Estornes Lasa editore eta idazle nafarrari omenaldia egin zion atzo Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), euskalgintzaren eta kulturaren alorrean egindako lan eskergagatik. Estornesek 90 urte bete ditu eta Donostiako bere etxeko liburutegian jaso zuen omenaldiko oroigarri-plaka bat-UEUKo ordezkarien eskutik. Bernardo Estornes Lasa izaban jaio zen 1907ean. Idazle eta editore nekaezina, haren lan nagusia Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco erraldoia da, Euskal Herriari buruzko lan entziklopediko nagusia, berak sortutako Auñamendi argitaldarien bidez kaleratutako lana. Euskaltzain ohorezko ere bada Estornes, eta Erronkariko euskara ikertzen lan handia egin du.



## ESKERTZA

JUANJO URRUTIA zenaren sendiak biziki eskertu nahi du haren heriotzaren kariatz lagun eta adiskideek agertu dolumin paregabea.

Doneztebe, 1997ko azaroak 29.